



## Zortzi titiriteroeren proposamenak haurrekin balioez mintzatzeko

ARRETA HANDIZ osatutako liburua plazaratu du Bizkaiko Urtxintxa eskolak: *Titiriteroeren ipuinak*. Arretaz ez ezik, gogoz, ilusioz, eta ekarpena egiteko borondatez, Ane Olabarriren koordinazioari esker ondua. Zeintzuk dira izenburuak aipatzen dituen titiritero horiek? Idazketan, kantuan, bertsotan nahiz zinema-gintzan trebe direlako, euskal kulturari aski ezagunak diren zortzi lagun: Miren Amuriza, Jasone Osoro, Mireia Delgado, Josu Martinez, Juankar Lopez Mugartza, Uxue Alberdi, Gotzon Barandiaran eta Pako Aristi. Zortzi ipuin-sortzaile beraz, Nagore Txintxurreta ilustratzailearen margo koloretsuak bidai-dituztela.

Ez da aro jakin bati zuzendutako idatzi multzoa, ez da ipuinaren itxuran datorren lezio sorta, ez eta alderdi ludiko hutsean konformatu nahi lukeen liburua ere. Izatez, denen batura du lanak, sortze bere-tik. Dibertitzeko, haurren eta helduen arteko harremana indartzeko eta halaber balioak sendotzeko erabili ahal izango litzatekeen tresna

jarri nahi zigun Urtxintxa eskolak eskura; parekidetasuna, bizikidetzatza, kulturartekotasuna eta elkarlana goratzen dituen jostailua; gurasoek, hezitzaileek, irakasleek, baita adin guztietako haurrek ere, pozarren hartuko luketen produktua. Gainera, braileta eta zeinu hizkuntza kontuan hartuz, gormutuak eta itsuak ere bere baitara ekarriko litzuzkeena. Hauxe da mega helburu horren emaitza: tapaki gogorreko liburua, barruan CDa eta DVDa ere bada-kartzana, QR ikurren bidez zortzi ipuinok eskuko telefonoan jarraitzeko bidea zabaltzen diguna.

Ipuin bakoitzak, bestalde, transmititu nahi dituen balioak lantzeko proposamena dakar amaieran. Ariketatxoak dira batik bat, gaiari hel-tzeko puntu lagungarriak, gogoeta-rako, hizketarako edo jolaserako aitzakiak.

Uxue Alberdi Estibalizek —esan nahi baita Denboraren titiriteroak—, ezertarako betarrik gabe bizitzeak sortzen dion kezka ekarri du *Pianoa-ren soinua* ipuinera. Ipuineko prota-  
gonista, Lur, denboraren bila abia-

tuko da, gurasoei oparitu nahi baitie hain eskas duten hori. Horretarako, denbora soberan izan dezaketenginguruko pertsonengana joko du, eta bakoitzari zerbait emango die oparitzen dizkieten minutuen truke. Oro har denok daramagun bizimodu presatuan umei sortzen zaien egoera da ipuin honetan aztergaia. Alberdiren hitzak hartuta, “haurrak nolabait oztopo baitira gizon-ema-kume okupatuen bizitzan”. Gure jendarteko drama handienetako bat iruditzen zaio egileari, eta guztiz zentzugabea, gainera: “bizitzeko denborarik ez dugu, lan egin behar baitugu noizbait bizi ahal izateko. Haurrei pagatu arazten zaien prezioa ikaragarria da”.

Agerikoa da, bestalde, liburu honen bidez adin txikikoen irudimenari egiten zaion gorazarrea. Umeek edozer arazo konpon baitezakete beren asmamenaz. Kasu honetan, baita gurasoen denbora-falta ere. ■

**Garbine Ubeda  
Goikoetxea**

